

Noiz eguneratua:

2021/12/28



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua

# **PREBENTZIO-NEURRIAK COVID-19A**

## **URTARRILAREN 14RA ARTE**

**COVID-19**aren osasun-krisiari aurre egiteko

### **COVID-19A**

**Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzua**

**Herritarren Arretarako Atala**

## AURKIBIDEA

### 1 **Neurriak**

- 1 [Zer ordura arte egonen dira irekita ostalaritza, jatetxe eta aisialdi establezimenduak?](#)
- 2 [Zer ordutan itxi behar dute elkarte gastronomikoek, peñek, etxabeek, piperok eta antzekoek?](#)
- 3 [Kale-zurrutik egin dezakegu?](#)
- 4 [Barran kontsumi dezakegu? Zenbat pertsona bil gaitzke mahai batean?](#)
- 5 [Diskoteketan edo dantzalekuetan, maskara jantzita egin behar dugu dantza?](#)
- 6 [Gizarte, kultura eta kirol ekitaldietan, jan edo edan daiteke?](#)
- 7 [Zineman, jan edo edan daiteke?](#)
- 8 [Gizarte, kultura eta kirol ekitaldiak egiteko, txostena eskatu behar zaio Nafarroako Gobernuari?](#)
- 9 [Eguberri izaerako ekitaldiak \(kabalgatak, San Silbestrea, segizioak edo antzekoak\) egiteko, txostena eskatu behar zaio Nafarroako Gobernuari?](#)
- 10 [Zer establezimendutan aurkeztu behar dut COVID-19aren pasaporteak?](#)
- 11 [12 urtetik beherakoek aurkeztu behar al dute COVID-19aren pasaporteak?](#)
- 12 [COVID-19aren zer motatako pasaporteak aurkez ditzaket eta noiz iraungitzen dira?](#)
- 13 [Maskara erabiltzea nahitaezkoa da?](#)
- 14 [Zer neurri hartu behar dira egoitza soziosanitarioetan?](#)

### 2 **Gomendioak**

14. [Zer gomendio orokorri jarraitu behar diet?](#)
15. [COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak baditut, zer egin behar dut?](#)
16. [Zer gomendiori jarraitu behar diet hurrengo egoeretan?](#)

- [Eremu pribatuko elkartze sozialak eta familiakoak](#)
- [Kanpoan egiten diren elkartze sozialak eta ekitaldiak](#)
- [Azokak edo merkatu txikiak eta jaiotzen erakusketak](#)
- [Errege kabalgatak eta antzekoak.](#)
- [Azoketako atrakzioak](#)
- [Erlijio ospakizunak](#)
- [Haur eta gazteentzako denbora libreko jarduerak](#)
- [San Silbestrea](#)

### **3. COVID-19aren pasaporteak: nola eta non eskuratu**

17. [Zer da COVID-19aren pasaporteak?](#)
18. [Doakoa al da COVID-19aren pasaporteak?](#)
19. [Non eskuratu dezaket COVID-19aren pasaporteak?](#)
20. [Nola identifikatuko naiz nire osasun karpetan sartzeko?](#)
21. [Zer urrats eginen ditut COVID-19aren pasaporteak eskuratzeko?](#)
22. [Pasahitza galtzen badut, nola lortuko dut beste bat?](#)
23. [Nola deskargatzen da COVID-19aren pasaporteak telefono mugikorrean?](#)

## 1 Prebentzio-neurriak

---



### 1. G- Zer ordu arte egonen dira irekita ostalaritza, jatetxe eta aisialdi establezimenduak?

**E- Goizeko 01:00a arte.**

**Honako jarduera hauek ixten dira, 01:00etik 06:00etara:** saltokiak, diskotekak, dantza-aretoak, ikuskizunetako kafetegiak, kontzertu-aretoak, tabernak, taberna bereziak, kafetegiak, jatetxeak, kultura jarduerak, bingoak, joko eta apustu aretoak, jolas-aretoak, bai eta funtzio anitzeko gunetako establezimenduak ere.



### 2. G- Zer ordutan itxi behar dute elkarte gastronomikoek, peñek, etxabeek, piperok eta antzekoek?

**E- Itxita egon behar dute 01:00etik 06:00etara.**

### 3. G- Kale-zurrutik egin dezakegu?

**R- Ez.** Debekatuta dago.



### 4. G- Barran kontsumi dezakegu? Zenbat pertsona bil gaitzke mahai batean?

**E-**

Establezimenduen barnealdean, lizentzia hauetakoren bat badute:

- **Taberna berezia, ikuskizunetarako kafetegia, tabernak, kafetegiak eta jatetxeak**

- **Elkarte gastronomikoak, peñak, etxabeak, "piperoak" eta antzekoak**
- **Bingoak, joko-, apustu- eta jolas-aretoak, eta funtzio anitzeko guneetako establezimenduak, ostalaritza eta jatetxe jarduera badute:**
  - **Mahaian eta eserita** eginen da beti **kontsumoa**.
  - Bezeroek **barrak** erabiltzen ahalko dituzte **janari-edariak eskatu eta hartzeko**.
  - Zilegi da **tabureteak dituzten mahaietan kontsumitzea, barraren ondo-ondoan daudenetan**. Mahaiak bi lagunentzat izanen dira gehienez, eta haien artean 1,5 metroko tartea utzi beharko da.
  - **Mahai bakoitzean edo mahai multzo bakoitzean, ezin da hamar lagun baino gehiago elkartu**, eta, betiere, 70 cm-ko **segurtasun tartea** utzi beharko da **pertsonen artean**.
  - **Mahaien arteko tartea 1,5 metrokoa** izanen da, mahaien ertzetik neurtuta.
  - Establezimenduek **kartelak** jarri beharko dituzte **toki nabarmenetan**, bezeroek birusaren transmisioa saihesteko bete beharreko **neurri orokorrak** adierazteko (distantzia, eskuen higiena eta batez ere maskara).
  - **Maskara erabiltzea nahitaezkoa izanen da** beti, **salbu eta edateko edo jateko unean**.

## **5. G- Diskoteketan edo dantzalekuetan, maskara jantzita egin behar dugu dantza?**

**E- Bai.**

Diskoteka, dantzaleku eta ikuskizunetarako kafetegien lizentzia duten establezimenduetan, maskara erabiltzea nahitaezkoa izanen da beti, baita dantza egiteko ere. Maskara ken daiteke soilik kontsumitzeko unean.

Era berean, barnealdean segurtasun-tartea gordeko da.



## **6. G- Gizarte, kultura eta kirol ekitaldietan, jan edo edan daiteke?**

**E- Ez.**

Debekatuta dago jatea eta edatea gizarte, kultura eta kirol ekitaldietan.



## **7. Zineman, jan edo edan daiteke?**

**E-**

Zinema aretoetan, **salbuespen gisa, elikagaiak eta edariak kontsumitzea baimenduko da.**

Kontsumo hori baimentzen duten aretoek bizikidetza-unitateen artean **besaulki bateko** tartea utzi beharko dute, gutxienez.



## **8. G- Gizarte, kultura eta kirol ekitaldiak egiteko, txostena eskatu behar zaio Nafarroako Gobernuari?**

**E-**

**Edukiera 1.000 pertsona baino gehiagokoa bada barnealdean eta 2.000 pertsona baino gehiagokoa kanpoaldean,** nahitaez eskatu behar zaio **txostena aurretik** Nafarroako Gobernuko Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari.

Birusaren transmisioa minimizatzeko aurreikusten diren **kontingentzia-neurriak** eta jardueraren **plangintza** bidaliko dira helbide elektroniko honetara: [ispdirec@navarra.es](mailto:ispdirec@navarra.es).



## **9. G- Eguberri izaerako ekitaldiak (kabalgatak, San Silbestrea, segizioak edo antzekoak) egiteko, txostena eskatu behar zaio Nafarroako Gobernuari?**

**E-** Ekitaldien edukiera **500 pertsona baino gehiagokoa bada barnealdean eta 1.000 pertsona baino gehiagokoa kanpoaldean, nahitaez eskatu** behar zaio **txostena aurretik** Nafarroako Gobernuko Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari.

Birusaren transmisioa minimizatzeko aurreikusten diren kontingentzia-neurriak eta jardueraren plangintza bidaliko dira helbide elektroniko honetara: [ispdirec@navarra.es](mailto:ispdirec@navarra.es).

## **10. G- Zer establezimendutan aurkeztu behar dut COVID-19aren pasaporteak?**

**E-** 12 urte edo gehiago dituzten pertsonak COVID-19aren pasaporteak aurkeztu beharko dute (3 pasaporte motetako edozein da balioduna), honako lokal eta establezimendu hauetara sartzeko:

- **Jatetxeak** (edozein izanik ere haien edukiera). Salbuetsita egonen dira unibertsitateetako eta enpresetako jantokiak
- **Diskoteka, dantza-leku, ikuskizunetarako kafetegi edo kontzertu-aretoen** lizentzia duten lokalak eta establezimenduak
- Turismoko ostatuak, hala nola **aterpetxeak, hotelak eta antzekoak**
- **Gimnasioak, zuzendutako kirol-jarduera fisikoak toki itxietan** egiten diren instalazioak (esaterako, zumba-, pilates-saioak edo antzekoak), **igerileku itxiak**



- **Barnean egindako ekitaldi jendetsuak** (Osasun Ministerioaren jarduketa koordinatuen agiriak arautzen dituen kirol ekitaldiak izan ezik)
- **Bingoak, eta joko-, apustu- eta jolas-aretoak**
- **Funtzio anitzeko gunetako establezimenduak**
- **Egoitza soziosanitarioak**

Establezimendu horietan guztietan:

- Sarrera kontrolatzeko betebeharrak honetatik salbuetsita daude aire zabalean dauden espazioak eta terrazak.
- **Ziurtagiria eman** beharko du osasun zerbitzu publiko batek edo Osasun Departamentuak baimendutako zentro batek.
- Hiru ziurtagirietako edozein aurkezten ahalko da **euskarri digitalean edo paperean**.
- COVID-19aren pasaporteak **sartzeko unean bakarrik eskatuko da**.
- **Datuak ez dira gordeko**, ezta horiekin fitxategirik sortuko ere.
- **Kartel bat** jarri beharko da sarreran, ikusteko moduko toki batean, sartzeko orduan ziurtagiria eskatuko dela jakinarazteko.

## **11. G- 12 urtetik beherakoek aurkeztu behar al dute COVID-19aren pasaporteak?**

E- Ez, ez dute zertan aurkeztu.

## **12. G- COVID-19aren zer motatako pasaporteak aurkez ditzaket eta noiz iraungitzen dira?**

**E-** Osasun zerbitzu publiko batek edo Osasun Departamentuak baimendutako zentro batek eman behar du COVID-19aren pasaporteak edo ziurtagiria.



Baliozkotzat jotzen dira hiru motatako COVID-19aren pasaporteak edo ziurtagiriak:

### **1. Txertaketa ziurtagiria**

- Egiaztatzen du titularrari COVID-19aren aurkako txertaketa pautan osoa eman zaiola baimendutako txertoetako baten bidez.
- Ez du iraungitze datarik.

### **2. Proba diagnostikoaren ziurtagiria**

- Egiaztatzen du titularrak COVID-19ren proba diagnostiko negatiboa duela.
- PCR probari dagokionez, 72 ordura iraungitzen da; eta antigenoen probari dagokionez, berriz, 48 ordura, proba edo testa egiten denetik.
- Autotest bidez edo farmazietako profesionalek egindako probak ez dira baliozkoak izanen.
- Halaber, Osasun Departamentuak aurreko 72 orduetan egindako proba diagnostikoaren emaitza negatiboa dela adierazteko igorritako SMSa onartuko da, baita Osasun Departamentuak baimendutako laborategi pribatuek emandako ziurtagiria ere.

### **3. Sendatze ziurtagiria**

- COVID-19a igaro ondoren ematen da; gaixotasuna izan behar da agintaritza eskudunaren baliozko proba baten bidez diagnostikatua.
- 180 egunera iraungitzen da, hasierako emaitza positiboaren datatik zenbatzen hasita.
- Halaber, Osasun Departamentuak aurreko 72 orduetan egindako proba diagnostikoaren emaitza negatiboa dela adierazteko igorritako SMSa onartuko da, baita Osasun Departamentuak baimendutako laborategi pribatuek emandako ziurtagiria ere.

### 13. G- Maskara erabiltzea nahitaezkoa da?

**E- Bai.**

Abenduaren 24tik aurrera, maskara **nahitaez erabili behar da kanpoaldean eta erabilera publikoko barnealdeetan.**

Ostalaritzan eta jatetxeetan maskara **soilik** ken daiteke jan-edanak kontsumitzeko unean.

### 14. G- Zer neurri hartu behar dira egoitza soziosanitarioetan?

**E.-**

**Senideak eta bisitariak sartzen direnean hartu beharreko neurriak**

- Zentroen barnealdera sartzeko aurkeztu beharko da COVID-19aren pasaporteetako bat: txertaketa ziurtagiria, proba diagnostikoaren ziurtagiria edo sendatze ziurtagiria.
- Bizitzaren amaierako egoeretan, ziurtagiriak aurkezten ez dituzten senideei edo bisitariei sartzen utziko zaie, dagozkien segurtasun-baldintzekin eta norbera babesteko ekipamenduekin.
- Osasun-egoeraren kontraindikazioagatik txertoa hartu ez badute, bisitariak osasun-zerbitzu batek emandako dokumentu bat aurkeztu beharko dute hori egiaztatzeko. Pertsona horiek FFP2 maskara bat eraman beharko dute.
- Adinagatik txertoa hartu ezin duten adingabeek FFP2 maskara eraman beharko dute bisitak egiteko.
- **Ezin zaie bisitarik egin kontaktu estua** eduki eta COVID-19arengatik bakartuta dauden pertsoneri, azken egunetan egon litezkeenei izan ezik. Kasu horretan, bisitak arrisku mailari egokitutako prebentzio neurriekin egingen dira.
- Ahal dela, bisitetarako kanpoko espazioak erabiltzeko gomendioari eusten zaio.



- Bisiten maiztasuna eta iraupena egoiliarrekin eta senideekin adostuko dira.
- Bisiten erregistroa eduki beharko da egoitzara joan diren bisitariak erraz aurkitu ahal izateko moduan.
- Egoitza batean COVID-19ak jotako pertsona bat dagoenean, edo berrogeialdian dagoena kontaktu estua eduki duelako, bisitak egiteko espazio seguruak prestatuko dira, ukitutako pertsonaren edo pertsonen isolamendua kentzen den arte. Egoitzak isolamendueremu berariazkoa duenean, gainerako unitateetako bisitak mantentzen ahalko dira.
- Egoiliarrek edo haren senideek egoitzako zuzendaritzari jakinarazi beharko diote, baldin eta COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak badituzte, bisitaren ondorengo 14 egunetan.

Egoitzako egoiliarrek bertatik **irteerak egiteko prebentzio-neurriak** hartzea.

- Irteera guztiak eginen dira herritar guztiei eskatzen zaizkien segurtasun-neurriak eta une oro Osasun Departamentuak ezar ditzakeen arau orokorrak betez, egoera epidemiologikoaren arabera betiere.
- Ez da inola ere baimenduko zentrotik atera daitezen COVID-19a dutenak edo kontaktu estua izateagatik berrogeialdian eta txertoa hartu gabe daudenak.
- COVID-19a ez dutenen irtenaldiak baimentzen dira, baita txertoa hartuta dauden eta kontaktu estua izateagatik jarraipenean dauden egoiliarrena ere. Horiek NOPLOIren jarraibideei jarraituko diete, hau da, txertatu gabeko pertsona zaurgarriekin kontakturik ez izatea, gizarte-interakzioetan maskara erabiltzea, sintomak zaintzea eta dagozkion proba diagnostikoak egitea. Nolanahi ere, kontaktu estutzat hartzen diren pertsonak NOPLOIk une bakoitzean ezartzen duen araudiari jarraituko diote.

### **Maskaren erabilera:**

- Ezin zaie egoitza barruan maskara erabiltzeko eskatu egoiliarren % 80tik gora txertatuta dituzten zentroetako egoiliarrei.
- Hala ere, txertoa hartu ez duten egoiliarrei maskara erabiltzea gomendatzen zaie.
- Bisitari guztiek IIR maskara kirurgikoa erabili beharko dute egoitzaren barneko espazioetan egoten diren denbora guztian. Kanpoaldeetan ere maskara erabiliko dute, 1,5 m-ko tartea gorde ezin badute.

## 2 Gomendioak

---

### 15. G- Zer gomendio orokorri jarraitu behar diet?

#### 1. Babesik onena **txertatzea** da.

Egiaztatu da txertatuta egon arren kutsatzen direnek sintoma arinagoak izaten dituztela; gainera, ospitaleratze eta heriotza kasuak murriztu egiten dira.

#### 2. **Maskara: nahitaezkoa da kanpoaldean eta erabilera publikoko barnealdeetan**

#### 3. **Metroak:** distantzia fisikoari eustea

#### 4. **Eskuak:** eskuak maiz garbitzea, urez eta xaboiez edo soluzio hidroalkoholikoak erabiliz.

#### 5. **Bilerak eta kontaktuak**

- **Kontaktu kopurua murriztea**
- **Topaketa sozialak kanpoan egitea.**

Aire zabaleko jarduerak dira seguruenak. Ezin badira kanpoan egin, **saiatu atzeratzen**. Ezin badira atzeratu eta barruan egiten badira, **ziurtatu aireztapena eta maskararen** erabilera egokia.

- **Jende pilaketak saihestea.**
- Gomendatzen da **txertaketa ziurtagiria edo proba diagnostikoaren emaitza negatiboa erabiltzea ekitaldi sozial pribatuetan.**

#### 6. **Aireztapena handitzea:**

- leihoak eta ateak zabalik izatea segurua eta posible den neurrian, tenperatura kontuan hartuta, barruko airea berritu dadin, eta kanpoko airearekin aireztatzea.

- Gomendatzen da parez pareko ateak edo leihoak zabaltzea edo, gutxienez, aretoko alde desberdinetan daudenak zabaltzea. Leihoak ardatz aldagarrikoak badira, horrela irekita utzi.
- Aireztapena oso garrantzitsua da elkarrekin bizi ez direnak barruko espazioetan biltzen direnean. Gomendatzen da bilerak egin aurretik, bitartean eta ondoren aireztatzea.
- Aireztapena behartua bada, kanpoko airearen sarrera maximizatu behar da eta airearen birzirkulazioa saihestu. SARS-CoV-2aren aerosol bidezko transmisioa gutxitzeko gomendioak kontsultatzen ahal dira, eta ahal den neurrian bete Osasun Ministerioaren indarreko gomendioak, eraikin eta lokaletako klimatizazio eta aireztapen sistemetan COVID-19aren hedapena saihesteko mantentze-lanetarako emandakoak.

## **16. Zer gomendiori jarraitu behar diet hurrengo egoeretan?**

**E-**

- Eremu pribatuko elkartze sozialak eta familiakoak
- Kanpoan egiten diren elkartze sozialak eta ekitaldiak
- Azokak edo merkatu txikiak eta jaiotzen erakusketak
- Errege kabalgatak eta antzekoak.
- Azoketako atrakzioak
- Erlijio ospakizunak
- Haur eta gazteentzako denbora libreko jarduerak
- San Silbestrea

## Eremu pribatuko elkartze sozial eta familiakoetarako gomendioak

- **Partaideen kopurua mugatzea** elkartze sozialetan eta familiakoetan, bizikideen artekoak ez direnean, batez ere pertsona zaugarriak daudenean.
- **Partaideen kopurua 10 izatea gehienez ere, eta 2 bizikidetzataldetakoak gehienez.**
- **Mahai handi bat** erabiltzea, elkartzen diren pertsonen arteko distantzia handiagoa izan dadin.
- **Maskara modu egokian erabiltzea** (sudurra, ahoa eta kokotsa estaliz), jaten edo edaten denean izan ezik.
- **Maskara behar bezala erabiltzea** bazkalondo eta afalondoetan.
- **Ahalik eta laburrenak izatea** familiako **elkartzeak**.
- Garrantzitsua da bilkura egiten den tokian **aireztapen ona** egotea. Ahal dela, jarduera **kanpoan** egiten da, eta, ezinezkoa bada, aireztapen egokia mantenduko da.

Honako hauek **ez lukete** inolako bilkuratan **parte hartu beharko**, soziala nahiz familiakoa izan:

- Katarro edo gripearen edozein sintoma dutenak eta emaitza negatiboa izan duen antigenoen autotest bat gutxienez egin ez dutenak.
- **COVID-19 diagnostikatua izan** eta bakartze aldian daudenak (3 egun sintomarik gabe eta gutxienez 10 egun sintomak hasten direnetik edo proba diagnostikoaren emaitza positiboa denetik).
- COVID-19aren **proba diagnostikoaren emaitzen zain** daudenak.

## Kanpoan egiten diren elkartze sozial eta ekitaldietarako gomendioak

Gomendatzen da kanpoan egiten jarraitzea, aire zabalean egiten diren jarduerak seguruenak direlako.

- Garrantzitsua da **maskara modu egokian erabiltzea** (sudurra, ahoa eta kokotsa estaliz), **jaten edo edaten denean izan ezik**.
- **Maskara behar bezala erabiltzea** bazkalondo eta afalondoetan.
- **Ahalik eta laburrenak izatea** familiako elkartzekak.

### **Eguberrietako azokak edo merkatu txikiak eta jaiotzen erakusketak.**

- Gomendatzen da **postuak aurrealdetik bereizita egotea zirkulaziorako bide batekin**, jendeak bertatik egin ditzan joan-etorriak, betiere bermatuz **pertsonen arteko 1,5 metroko gutxieneko distantzia** betetzea; bide horrek **4,5 metroko zabalera** izanen du gutxienez.
- Gomendatzen da **elkarren ondoko bi posturen artean elementu isolatzaileak** paratzea, independentzia gordetzeko, edo, halakorik ez bada, 1,5 metroko tarte egotea.
- **Jaiotzen erakusketen** kasuan, gomendatzen da jaiotzak **aurrealdetik bereizirik kokatzea, tartean bide bat utziz, 4,5 metrokoa gutxienez**. Elkarren ondoko bi jaiotzaren artean **elementu isolatzaileak** paratzea gomendatzen da, haien arteko independentzia gordetzeko, edo, halakorik ez bada, 1,5 metroko tarte egotea gutxienez.
- **Saihestuko da** pertsonen **zirkulazioa postuen edo jaiotzen alboetatik**. Erraztasunak emanen dira barrutian sartzeko eremu bat eta irteteko beste bat egon daitezen, argi bereizirik.
- **Maskara erabiltzea barruti guztietan**, bai barrualdekoetan, bai aire zabalekoetan.
- Jarduera horiek barrualdeetan egiten badira, **aireztapen gomendioak** beteko dira



## Errege kabalgata eta antzekoetarako gomendioak

**Antolatu nahi diren ekitaldien edukiera 500 pertsona baino gehiagokoa bada barnealdean eta 1.000 pertsona baino gehiagokoa kanpoaldean, nahitaez eskatu behar zaio **txostena aurretik** Nafarroako Gobernuko Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari.**



Birusaren transmisioa minimizatzeko aurreikusten diren kontingentzia-neurriak eta jardueraren plangintza bidaliko dira helbide elektronikoko honetara: [jspdirec@navarra.es](mailto:jspdirec@navarra.es).

Gomendioa da ekitaldi horiek, ahal dela, **modu estatikoan** gauzatzea edo **sarbidea kontrolatzeko** moduko tokietan, **jendetza biltzea saihestuz eta beti bermatuz betetzen direla** higiene arauak eta prebentzio neurriak, maskararen erabilera eta pertsonen arteko segurtasun distantzia.

### a. Estatikoak

- **Aire zabalean edo aireztapen handiko eremuetan** eginen lirateke, adibidez, kiroldegietan, pilotalekuetan edo antzekoetan.
- Gomendatzen da eremu horietan **sarrera eta irteera independenteak izatea eta barruan ibilbideak seinaleztatzea**, bisitariak elkar gurutzatzea eta jendetza biltzea saihesteko. Ahal den neurrian, ekitaldi horiek **esleitutako eserlekuekin** eginen dira.
- Gomendatzen da **debekatzea** ekitaldian **jatea eta edatea**.
- Barruti osoan **nahitaezkoa izanen da maskara erabiltzea**.
- Bisitariak gomendatzen diren **neurriak buruzko informazioa** emanen zaie **kartelak, megafonia eta abar erabiliz**.
- **Ez da gomendatzen gozokirik, litxarreriarik eta halakorik banatzea**. Opari txikiak eman litezke eskura, betiere ezarritako higiene baldintzak gordez.

## **b. Kalez kale egiten direnak**

- **Olentzeroren eta erregeen desfileetan eta halakoetan** egiten direnean, gomendatzen da **partaideen kopurua izatea** ekitaldia egiteko **behar den gutxieneroa**.
- **Partaide** guztiek beteko dituzte gomendatutako segurtasun neurriak, hau da, **pertsonen arteko gutxienero 1,5 metroko distantzia, maskararen erabilera, eskuen garbiketa. Ez da gomendatzen gozokirik, litxarreriarik eta halakorik banatzea**.
- Gomendatzen da **ikusleentzako eremua handitzea** jendetza bildu daitekeela aurreikusten bada.
- Era berean, gomendatzen da **zirkulaziorako pasabideak** ezartzea ibilbideetan, pertsonen joan-etorriak ordenatuak izan daitezen laguntzeko.

## **Azoketako atrakzioak**

- Betetzea Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak azoka eremuetarako eta azoketako atrakzioetarako ezarritako jardunbide egokien protokolo eta gidaliburuan jasotako jardunbide egokiak.
- Azoka eremuan edo zenbait instalazio jartzen diren gunen publikoetan, atrakzioen **instalazioaren eremua zedarritzea** gomendatzen da, eta xede horretarako mugatuko da, edukiera eta sarrerak kontrolatu ahal izateko.
- Gomendatzen da **sartu eta ateratzeko bide bereziak** ezartzea, pertsonen joan-etorriak behar bezala egitea bermatzeko eta jendetza biltzea saihesteko.
- Komeni da atrakzio eta salmenta-postu bakoitzak **kartelak izatea** bezeroentzat ikusgai, erabilera arauen, edukieraren, sarrera-irteeren eta segurtasun distantziaren **informazioarekin**.
- Gomendatzen da **maskararen erabilera nahitaezkoa izatea** barruti guztian.

- **Jatetxe zerbitzua** badago, behar bezala zedarritutako eremu batean jarri beharko da, **atrakzioen eremutik bereizita**, eta zerbitzu hori emateko ezarritako baldintzak bete beharko dira.

### **Erlijio ospakizunetarako gomendioak**

- Distantzia fisikoa.
- Sarrera-irteerak mailakatzea edo sarbide desberdinetan banatzea, jendetza biltzea saihesteko.
- Maskararen erabilera egokia (sudurra, ahoa eta kokotsa estaliz).
- Aireztapen egokia
- Pertsonen arteko kontaktu fisikoa eta debozioko objektuena mugatzea (musu emateko objektuak kentzea).
- Gomendatzen da arreta berezia izatea zeremonia buruekin eta koruekin, kantu gutxiagorekin, betiere maskara behar bezala erabiliz eta pertsonen arteko distantzia gordez.
- Ez dago baimenduta jatea eta edatea erlijio eta gurtza ospakizunetan eta ekitaldietan.

### **Haur eta gazteentzako denbora libreko jardueretarako gomendioak**

Haur eta gazteentzako denbora libreko jarduerak egiteko, hala nola **udalekuak, ludotekak eta antzekoak**, gomendatzen da aintzat hartzea neurri hauek haiek planifikatu eta antolatzean:

- **Sarrera-irteerak mailakatzea** edo sarbide desberdinetan banatzea, jendetza biltzea saihesteko.
- **Taldean kide kopurua, ordutegiak eta egin beharreko jarduerak planifikatzea**, prebentzio neurriak bete ahal izan daitezen, esate baterako, pertsonen arteko distantzia fisikoa, eta,

beharrezkoa izanez gero, **txandak** egingen dira programatutako jarduerak gauzatzeko.

- Bereziki, aerosolak sortzeko arrisku handiagoa duten jardueren kasuan (kantatzea, batera hitz egitea, oihukatzea, etab.) **lehenetsi aire zabalekoak**.
- Jarduerak barrualdeko guneetan egiten badira, **aireztapen egokia** izan beharko dute

### San Silbestrerako gomendioak

Antolatu nahi diren ekitaldien **edukiera 1.000 pertsona baino gehiagokoa** bada kanpoaldean, **nahitaez eskatu** behar zaio **txostena aurretik** Nafarroako Gobernuko Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari.



Birusaren transmisioa minimizatzeko aurreikusten diren kontingentzia-neurriak eta jardueraren plangintza bidaliko dira helbide elektronikoko honetara: [ispdirec@navarra.es](mailto:ispdirec@navarra.es)

“San Silbestre” lasterketaren gisakoak planifikatu eta antolatzerakoan, gomendatzen da honako hauek aintzat hartzea:

- **Lasterkarien irteera planifikatzea, talde ez oso handitan eta mailakatuta** egin dadin, taldeen artean gutxienez 5 minutuko tarte utziz.
- **Parte-hartzaileek lehiaketa hasi aurretik maskara erabili** beharko dute nahitaez, **baita ikusleek ere**.
- Lasterketaren zirkuituetarako **sarrerak eta irteerak bereizirik egotea**, parte-hartzaileek elkar gurutzatzea saihesteko.
- **Sari-emateko ekitaldiak jendetza biltzea eta zuzeneko kontaktuak saihesteko** neurriak hartuz diseinatzea.
- **Ikusleen joan-etorrietarako pasabideak jartzea lasterketaren ibilbidean**.

### **3 COVID-19aren pasaporteak: non eta nola eskuratu**

---

Zenbait establezimendutan COVID-19aren pasaporteak aurkezteko neurria indarrean egonen da 2022ko urtarrilaren 7ra arte.

#### **17. G- Zer da COVID-19aren pasaporteak?**

**E-** EBko COVID-19aren pasaporteak edo ziurtagiri digitala Europar Batasuneko estatuen artean errazago mugitzeko dokumentua da.

Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi Osasun Departamentuak COVID-19aren pasaporteari buruz prestatu duen [gidaliburu osoa](#).

#### **18. G- Doakoa al da COVID-19aren pasaporteak?**

**E-** Bai, doakoa da.

#### **19. G- Non eskuratu dezaket COVID-19aren pasaporteak?**

**E-** COVID-19aren pasaporteak zure osasun karpeta pertsonalean dago: Karpeta horretan sartzeko, erabili esteka hau:

- [http://www.navarra.es/home\\_eu/Temas/Portal+de+la+Salud/Ciudadania/Actualidad/Carpeta+Personal+de+Salud/](http://www.navarra.es/home_eu/Temas/Portal+de+la+Salud/Ciudadania/Actualidad/Carpeta+Personal+de+Salud/)

#### **20. G- Nola identifikatuko naiz nire osasun karpetan sartzeko?**

**E-** Egiaztagiri hauetako bat erabil dezakezu zure burua identifikatzeko:

- NAIKP + jaioteguna eta NAIKP + pasahitza.

- Cl@ve (iraunkorra), ziurtagiri digitala edo NAN elektronikoa.



## NAIKP + jaioteguna

Zure osasun karpetara sartzeko modurik errazena da, eta ez duzu bulego batera joan beharrik izanen.

Sartu esteka honetan, informazioa lortzeko.

- Egin klik “Eskatu pasahitza” aukeran. Telefono mugikorraren zenbakia eskatuko da. Zenbakia bat badator Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren datu-basean dagoenarekin, eskatzaileak egiaztapen kode bat duen SMS bat jasoko du. Kode hori sartuta, osasun karpeta pertsonalean sartzeko pasahitza sortuko da.
- Bide berri hori erabiltzeko, **beharrezkoa da gutxienez 16 urte izatea** eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren datu-basean agertzen diren datuak eguneratuta edukitzea (zure osasun zentroan egiazta dezakezu).
- Hala ere, aurretik ziurtatu ez zaudela alta emanda osasun karpeta pertsonalean. Izan ere, kasu horretan ez litzateke beharrezkoa izanen bide berri hori erabiltzea. Karpetan alta eskatu baduzu eta pasahitza gogoratzen ez baduzu, web-orrira sar zaitezke (NAIKP + pasahitza aukerarekin), edo telefono mugikorreko aplikaziora, eta honako aukera hau hautatu: “Sortu pasahitza / Zure pasahitza

ahaztu/blokeatu duzu". Aukera horren bidez, pasahitz berri bat sortuko da, zure karpetara eta COVID-19aren pasaportera sartzeko.

### **Cl@ve iraunkorra**

Cl@ve PIN erabilia ezin da COVID-19aren pasaportea deskargatu.

Zure Cl@ve iraunkorra lortzeko, baimendutako bulego publiko batera joan beharko duzu.

Gogoratu Cl@ve lortzeko ezinbestekoa dela erregistratu behar den pertsona bertan egotea eta telefono mugikor bat edukitzea.

- Esteka honetan dituzu Nafarroako Gobernuaren [bulegoak](#). Gogoratu [aurretiko hitzordua](#) eskatu beharko duzula.
- Horrez gain, Nafarroako [udal eta estatu bulegoen zerrenda](#) ematen dizugu, horietan ere Cl@ve iraunkorra eskuratzen ahalko baituzu.

### **Ziurtagiri digitala**

Esteka honetan kontsulta ditzakezu ziurtagiri digitala eskuratzeko egin beharreko urratsak:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/internet-bidez-tramitzeko-laguntza/ziurtagiri-digitala>


### **NAN elektronikoa**

NAN elektronikoa erabilia sartzeko, NANaren irakurgailua izan beharko duzu.

[Hemen](#) eskuratu dezakezu NAN elektronikoari buruzko gidaliburu osoa.

## 21. G- Zer urrats egingen ditut COVID-19aren pasaporte eskuratzeko?

E- Behin osasun karpetan sartuta, txertaketa ziurtagiria deskarga dezakezu honela: sakatu "COVID-19a" fitxan, sartu "EBko COVID-19aren ziurtagiri digitala" atalean, eta hautatu "Ziurtagiria sortu".



Ziurtagiria sortu ondoren, hautatu "Deskargatu", eta dagoeneko prest duzu inprimatzeko.

## 22. G- Pasahitza galtzen badut, nola lortuko dut beste bat?

E- Pasahitza ahaztu bazaizu, sartu zure [osasun karpeta](#)n, eta hautatu:

**"Ahaztu/blokeatu duzu zure pasahitza?"**





Pasahitz berri bat sortzen ahalko duzu, osasun zentroan jakinarazi zenuen telefono mugikorrean SMSa jaso ondoren.

### **23. G- Nola deskargatzen da COVID-19aren pasaporte telefono mugikorrean?**

**E-** Nafarroako Osasun Karpetaren aplikazioa Google Playn eta App Storen dago eskuragarri.

Aplikazioa zure gailu mugikorrean instalatu eta gero, zure kredentzialak idatzi beharko dituzu, aurreko galderetan azaldu den bezala.

Osasun karpetaren barruan zaudela, ordenagailu batetik sartzeko erabiltzen dituzun jarraibide berberak bete behar dituzu.

Behin barruan egonda:



### En Carpeta Personal de Salud

### App móvil



COVID-19aren zure ziurtagiria deskargatu, eta gailuko (mugikorra, tableta) deskarga-fitxategietan gorde dezakezu, edo, bestela, zure ziurtagiriaren QRra sar zaitezke.